

# 14-04-2019

Gure ibilbidea **Atxarteko** aintzinako harrobietako azpiko aparkalekutik hasiko gara, errepidearen eskuinean dagoen baseliza ondotik. Laster, azken aparkalekuraino iritsiko gara, eta pagadi barnean sartzen den bide zidorratik abiatuko gara. Bideak, mendi honetako hegoaldeko maldatik jarraitzen du, **Genzelai**(485m) landan ezkerrean utziko dugularik. Tentsio handiko kableak **Artola mendatera** igotzen den bidea markatzen digu (IE). Eskuinena **Alluitz** tontorra (1040m) izango dugu. Guk berriz, ezkerretara joko dugu **Aitz-txiki** mendiko gaina ailegatu arte. **(792m)** (1h.20'). Gailurretik **Bizkaiko eskalada eskola** zaharrena kokatzen da eta Atxarte haran izugarria begibistan izango dugu. Bertan 30. hamarkadatik aurrera euskal mendizalenezako leku historiko bat izan da, non bere paretetan belanaldi ezberdinetako alpinistak hezi baitira .

Berriro bide berdinetik jaitsiko gara Artola mendate arte, bertan ekialderantz Alluitzeko iparraldeko magalitik jaitsiko gara. Bertan bidea pista bihurtzen da. Honek Mendiolatik Axpera doan errepideko goreneko puntuan utziko gaitu. Bertan ibilbide-seinale bat dago. Ekialderantz berriro jaisteari ekingo diogu, **Axpe** elizatera iritsi arte, **Atxondoko aranera**.

Luzera: 6,18km.

Desnibela: +470/-496

Denbora: 2:45' ( nagusiak) 3:30' (Gailurra-txiki)

Compártelo:

[Click to share on Twitter \(Opens in new window\)](#)

[Click to share on Facebook \(Opens in new window\)](#)

[Click to share on Google+ \(Opens in new window\)](#)

## DATU TEKNIKOAK

Jarduera mota

GAILURRA TXIKI. Familientzako irteera

Kokapena

Metatutako desnibela

Luzera

Jardueraren iraupenaren aurreikuspena

## Elkartzeko tokia eta ordua

9:00 Gailurraren lokalean. (Trauko 27)

## Ibilbidearen hasiera eta bukaera

ATXARTE 10.00ean

## Irteerarako izena emateko azken eguna

12/04/2019

## Jakin beharreko kontu teknikoak

Bide zidor eta larretatik ibiliko gara, Beharrezkoa da lurzoru irregularrean segurtasunez ibiltzeko ohitura izatea.

## Prestakuntza fisiko beharrezkoa

Ibilbidea ez da oso luzea , baina desnibela nabarmena da eta leku batzuetan oso aldapatsua.

## Material tekniko beharrezkoa

Garai honetarako eta jarduera honetarako egokiak diren mendirako arropak eta oinetakoak. (edozein eguraldiri aurre egiteko modukoak). Kontuan izan urte sasoi honetan oraindik hotz handi samarra egin dezakeela. - Janaria eta edaria. -Umeek A4 plastiko funda batean beraien mapa eraman dezakete, ibiladiaren datuak kontsultatzeko.

## Bestelako oharrak

Nola joan: kotxez. (Kotxerik ez ba duzu esan) Nola heldu: Autopista AP8, Durangotik pasatu. Atxondo

irtera. Eskumatara jo. 636 errepeidea hartu Durangorantz Muntzarazetik pasatuz. Ezkerretara Mendiola eta Atxartera doan errepeidea dugu.

## Kontuan hartzekoak

### Irten aurretik:

1. Informa zaitez: irakurri ondo ibilbidearen fitxa eta mapa zure familirako ibilbide egokia den ala ez erabakitzeke.
2. Motibazioa sortu: Hitz egin zure umeekin ibilbideari buruz, argazkiak erakutsi, eta eurentzako mapa emon gainean marraztu eta kolorea emon dezaten.
3. Motxila prestatu: urteko sasoi eta jardueraren ezaugarriak kontuan hartu eta behar-beharrezkoak diren gauzak sartu. Umeek euren motxila txikia prestatzea ere komenigarria da.

### Mendian:

4. GURASOAK DIRA BERAIEN SEME-ALABEN ARDURADUNAK: umeek askatasuna behar dute eta euren gurasoak adi egon behar dira.
5. Gailurra Mendi Taldeko kide-antolatzaileek jardueraren nondik norakoak ezaguten dituzte, jarraitu euren orientabide eta aholkuak.
6. Komunika zaitez: Zalantzak galdetu. Arazo edo behar bereziak izanez gero, esan zure ondokoei baita antolatzaileei ere.
7. Taldearekin bat: ez zaitez aurretatu, ezta atzeratu ere. Batzutan taldea biltzeko geldituko gara, bestetan jateko edo jolasteko.
8. Garbi jokatu: Landareak eta animaliak errespetatu. Ez bota harririk. Ez egin zarata haundirik. Zure zaborrak batu eta eraman.
9. Ikusi eta ikasi: umeen jakin-minaz kutsatu eta prest egon elkarrekin gauza berriak ikasteko. Era berean, dakizuna zabaldu.
10. Laguntasuna sustatu. Tontorrera heltzea atsegina da baina ez da inportanteena.

## Izena emateko:

Gailuraren webgunean . Ipini zure izen abizena (heldua) eta ondoren umearena (adinarekin batera)  
Adibidez: Pirritx Irrizabalaga + Pupu (5) + Lore (5)

## Argibide gehigatarako

ROBER 656764081

